

Meatzaldean tren zerbitzu duinak

LA HAINE EUSKAL HERRIA :: 05/03/2023

Meatzaldean tren zerbitzu duina aldarrikatu dute Ortuellako kaleetan.

Meatzaldeko gazteak Ortuellako kaleetan zehar barrena joan den manifestazioan Meatzalderako kalitatezko tren zerbitzuaren beharra aldarrikatu dute. Manifestazio osoan zehar hainbat aldarri entzun izan dira, hala nola, “meatzaldean, tren zerbitzu duinak” edota “RENFE espabila, queremos tren nocturno”.

Manifestariak, Ortuellako tren geltokitik Otxartaga plazaraino joan dira “Meatzaldeak kalitatezko trena behar du. RENFE, culpable” lelopean. Plazan, gaueko tren zerbitzua, matxura eta atzerapenen abisuak eta informazioa zein trenbide eta geltokien mantentze lanak aldarrikatu zuen pankarta baten azpian komunikatua irakurtzeari ekin diote manifestazioari bukaera emateko. Egindako irakurketan, sufritzen duten egoera jazeazina eta agintarien zein udaletxeen kezka eza salatu dute. Horregatik, antolatzearen eta borrokaren garrantzia azpimarratu dute sufritzen duten egoerari buelta emateko.

Azkenik, etorri diren pertsona orori eskerrak eman diete bertaratzeagatik eta egoera ez aldatzekotan, hurrengo mobilizazio zein dinamikei adi egoteko ohartari dute.

[Castellano]

REIVINDICAN UN SERVICIO FERROVIARIO DIGNO EN LA ZONA MINERA EN LAS CALLES DE ORTUELLA

“Meatzaldeko gazteak” han recorrido las calles de Ortuella en una manifestación en la que han reivindicado la necesidad de un servicio ferroviario de calidad para la zona minera. A lo largo de toda la manifestación se han escuchado consignas como «en la zona minera, servicios de trenes dignos» o «RENFE espabila, queremos tren nocturno».

Los manifestantes han marchado desde la estación de tren de Ortuella hasta la plaza Otxartaga bajo el lema “La zona minera necesita un servicio de calidad. RENFE culpable”. En la plaza se ha procedido a la lectura de un comunicado bajo una pancarta en la que se reivindicaba el servicio nocturno de trenes, avisos e información de averías y retrasos y el mantenimiento de vías y estaciones. En la lectura realizada, han denunciado la situación «intolerable» que sufren y la «falta de preocupación» tanto de las autoridades como de los ayuntamientos. Por eso, insisten en la importancia de organizarse y luchar para dar la vuelta a la situación que sufren.

Por último, han agradecido a todas las personas que han acudido y en caso de no cambiar la situación, han advertido de que estén atentos a las próximas movilizaciones y dinámicas.

<https://eh.lahaine.org/meatzaldean-tren-zerbitzu-duinak>